



MUTRIKUKO
ESKOLA KIROLA
2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

I.B ERANSKINA

2020KO URRIAREN 16EAN

PREBENTZIO- ETA JARDUKETA-PROTOKOLOA* COVID-19aren AURREAN

MUTRIKUKO ESKOLA KIROLA

* Protokolo hau kirol-erakunde bakoitzaren errealitatera eta funtzionamendura egokitu behar da, hori bai, erakundeek eskola-kirolerako ezarri dituzten Jarduteko Arau Orokorrak eta erakundeak garatzen dituen kirol-jarduera edo -diziplinetako Arau Espezifikoak errespetatuz.

Berez, badira erakundeak goitik behera garatu behar dituen hainbat elementu, lotura estua baitute kirol-erakundeak erabiltzen dituen instalazioekin eta haren barne-funtzionamendurekin.

Bestalde, protokoloa, egokitzapen txiki batzuk eginda, bere gain har dezakete bai eskola-kiroleko jarduerak bakarrik dituzten erakundeek (ikastetxeek, guraso-elkarteek...) bai beste era bateko jarduerak ere badituzten kirol-erakundeek (federatuek, aisialdikoek, etab.).

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

JUSTIFIKAZIOA

Zalantzarik ez dago 2020-2021 ikasturtea berezia izango dela, COVID-19ari esparru guztietatik aurre egiteko, aurrean dugun egoera berri eta aparta kontuan hartuta.

Eskola-kirolari ez zaio arrotz egoera hori, inondik inora ere ez. Argi daukagu funtsezkoa dela gure adingabeen kirol-jarduera ziurtatzea. Eta ez osasunaren, sozializazioaren edo jolasaren ikuspegitik ariketa fisikoa egitea haurrentzat beharrezkoa delako bakarrik, baita, horrez gainera, kirola erregularitasunez egiteak immunitate-sistema indartzen laguntzen duelako ere, eta horrek, aldi berean, gaixotasunari aurrea hartzen eta sintomatologia arintzen laguntzen du.

Eskolako kirol-jarduera fisikoaren ezaugarriek (instalazioak, materialak, kontaktuak, taldeko joan-etorriak eta gaua igarotzea eskatzen duten jarduerak, kirolarien adina) asko zailtzen dute eskola-kiroleko programak eta egungoa bezalako krisi-egoera sanitarioa uztartzea.

Hori dela eta, kirol-erakunde guztiek ezarri behar dituzte kirolarien, teknikarien eta jardueretan esku hartzen duten gainerako eragileen artean kutsatzeko arriskua gutxitzea ahalbidetuko duten prozedurak. Protokolo honetan jaso diren prozedura horiek aldatu egiten dituzte kirola egiteko baldintzak, hain zuzen ere, pandemiaren aurrean segurtasuna areagotzeko, ezin litekeenez bestela izan.

Horrela, funtsezkoa da kirolariak, familiek, teknikariak eta erakundeko gainerako eragileek egoera ulertzea. Urte berezia dugu hau, jarduerak egokitu egin behar izan dira edo beste era bateko jarduerak egin beharko ditugu, eta denok jabetu behar dugu hauek direla posible diren baldintza bakarrak eta onenak baldin eta une honetan dugun errealitate honetan kirol-jarduera fisikoak garatu nahi baditugu.

Gogoan izan behar da protokolo honetan jaso diren neurriak osasun-agintariak eta kiroladministrazioek ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen dituztela, eta horiek, pandemiaren intzidentziari eta eskumenak dituzten erakundeek hartzen dituzten erabakien arabera, aldatu egin daitezkeela.

Azkenik, protokolo hau zuzen ezartzeak eta, ondorioz, kirol-jarduera seguruak egiteak eskatzen du konpromiso irmoa hartzea inplikaturako pertsona guztiek, hau da, familiek, kirolariak, teknikariak, erakundearen arduradunek, etab. Hartu beharreko neurriak aplikatzean,

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





MUTRIKUKO ESKOLA KIROLA 2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

funtsezkoa da erakundea osatzen duten pertsona guztien eta bakoitzaren erantzukizun indibiduala eta kolektiboa.

HELBURUAK

Erakundeak helburu nagusi bat bete behar du protokolo honekin:

- Erakundearen kirol-jarduerak segurtasun-baldintzatan antolatu behar ditu, eta, horretarako, dagozkion prebentzio- eta higiene-neurriak ez ezik COVID-19arekin erlazionatutako kasuak edo egoerak hautematen direnerako jarduketara-jarraibideak ere ezarri behar ditu.

Helburu hori lortzeko, oinarrizkoa da bigarren mailako helburu bat ezartzea:

- Kirol-erakundea osatzen duten pertsona guztiei erantzukizun indibidualaren eta kolektiboaren garrantziaren berri eman behar die, guztiak horren inguruan sensibilizatu eta kontzientziatu behar ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko eta kasu baten aurrean jarduteko jarraibideak eman behar ditu.

Horrela, funtsezkoa da protokolo honetan jasotako helburuak, neurriak eta orientabideak behar bezala komunikatzea/hedatzea, baita horiek etengabe ebaluatzea ere, jarraipena etengabea izan dadin eta, hala badagokio, aurrean ditugun egoera aldakor eta berrietara egokitu ahal izan dadin.

APLIKAZIO-ESPARRUA

Protokolo hau aplikatu behar da erakundeak antolatzen dituen eta foru-aldundiaren eskolakiroleko programen esparruan garatzen diren era guztietako jardueretan, hau da, lehiaketa-, irakaskuntza-, detekzio-, jolas- edo kirol- eta kultura-jardueretako saioetan.

Era berean, erakundeak eskola-kiroleko programetatik kanpora antolatzen dituen eta forualdukiak baimenduta dauden jardueretan ere aplikatuko da.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



PROTOKOLOAREN ARDURA DUTEN ORGANOAK ETA PERTSONAK

1. ERAKUNDEKO OSASUN-ARDURADUNA*

Erakundeak osasun-arduradun bat izendatu behar du. Eredu bat gehitu da III. eranskinean.

Pertsona hori izango da protokoloaren arduradun teknikoa, eta berak zainduko ditu horren dinamizazioa eta funtzionamendu egokia.

Pertsona horrek nahitaez izan behar du Kirolaren Euskal Eskolaren bidez erakundeek irudi horrentzat garatuko duten prestakuntza.

Honakoak izango dira bere eginkizunak, zehatzago adierazita:

- Erakundearen jarduten duten langile eta/edo boluntario guztiei, baita kirolari adingabeen familiei ere, jakinarazi beharko dizkie ezarrita dauden prebentzio-, jarduketak- eta, hala badagokio, diziplina-neurriak. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jakinaraziko die.
- Gainbegiratuko du adingabe bakar batek ere ez duela jarduera hasiko bere familiak protokoloaren berri baduela, protokoloa onartzen duela eta betetzeko konpromisoa hartzen duela jasotzen duen agiria sinatu eta erakundera bidali arte. Berdin jokatuko du teknikariekin eta arbitroekin jarduerari hasiera eman aurretik.
- Etengabe gainbegiratuko ditu erakundearen jarduerak, hain zuzen, protokoloan jaso diren prebentzio- eta higiene-neurri guztiak eta eskumenak dituzten agintariek ezarritako gainerako arauak betetzen direla ziurtatzeko.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



- Jarduketa koordinatuko du eta beharrezko komunikazioa ezarriko du osasun-agintariekin eta/edo familiekin edo eragindako pertsonekin baldin eta jarduerak garatzen diren bitartean sintomak dituen pertsona bat edo COVID-19 kasu bat hautematen bada.

COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak garatuko ditu eta gobernu- edo zuzendaritzaorganora bidaliko ditu haiek onar ditzaten. (Erakunde-motaren arabera, litekeena da hori erakundeko gobernu- edo zuzendaritza-organoaren (Batzarra, Ikastetxeko Eskola Kontseilua, etab.) eginkizuna izatea).

Protokoloa betetzen ez den kasuetan erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoak hartu beharrezko diziplina-neurriak ezartzeko proposamena egingo du. (Erakunde-motaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak, Lehendakaritza, Zuzendaritza Taldeak, Kiroletako Batzordeak, etab.)

- Beharrezko kudeaketak egingo ditu protokoloarekin zerikusia duen informazioa erakundearen webgunean jarrita egon dadin. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jarriko da.
- Dagozkion salbuespenak ezarriko ditu aldagelak erabiltzeari, laguntzaileak sartu ahal izateko baimenari eta antzekoei dagokienez.
- Protokoloari buruz egiten den edozein informazio-eskaerari erantzungo dio.
- Protokoloa etengabe ebaluatuko du eta, hala badagokio, hura egokitzeke proposamenak helaraziko dizkio erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoari.
- Une hauetan, honakoa da erakundeko osasun-arduraduna: **EVA SANABRIA CARMONA**, *Eskola Kiroleko koordinatzailea, da Eskola osasun arduraduna. Kontaktua: 653748475*

2.ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA- EDO ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

Honakoak izango dira erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoaren eginkizunak:

- Erakundeko osasun-arduraduna izango den pertsona izendatuko du.
- Protokoloa eta, hala badagokio, protokoloan egiten diren aldaketak onartuko ditu.
- Hala badagokio, COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak onartuko ditu.
- Dagozkion diziplina-neurriak ezarriko ditu protokoloa betetzen ez den kasuetan.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





3. INPLIKATUTA DAUDEN BESTE ERAGILE BATZUK

Protokoloa behar bezala eta modu seguruan ezartzeko, ezinbestekoa da kirol-erakundeak osatzen duten gainerako pertsonen (teknikarien, kirolarien, familien, arbitro-taldearen, eskolakirolaren arduradunaren) inplikazioa.

Pertsona horien eginkizunak eta pertsona horiek kontuan izan beharreko beste hainbat alderdi pertsona edo kolektibo horietako bakoitzarentzat sortu den informazio-materialean, eranskinetan, jasota daude.

PREBENTZIO-ELEMENTUAK



1. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRI OROKORRAK

. Eskola Kirolak aurten Goizeko Izarra ikastolako 2 patioak eta Mutriku Kiroldegia erabiliko ditu bere saioetarako.

Horrenbestez, eta instalakuntza propioak ez direnez, prebentzio eta higiene neurri gehienak udalak berak ezarritakoak izango dira.

a. JENDE-PILAKETAK SAIHESTEKO ANTOLAKETA-NEURRIAK

Kiroldegiak, udalaren gestioaren bitartez, jende-pilaketak saihesteko hainbat neurri jaso ditu.

- Eskola-kiroleko programetarako erabili nahi diren kirol-instalazio eta espazioek, erakundearenak izan edo hirugarren batenak izan, 2020-2021 ikasturteko eskola-kirolerako Jarduteko Arau Orokorretan ezarritako neurriak errespetatu beharko dituzte.
- Hirugarren batenak diren instalazioak erabiltzen badira, atal honetako hainbat puntutan instalazioen erakunde titularrak ezarritako neurriak jaso beharko dira, eta beste puntu batzuk, berriz, erakundearen beraren antolaketaren arabera bete beharko dira.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





- Instalazioen titularra erakundea bera bada, lau puntuak zehaztu beharko dira, 2020-2021 ikasturteko eskola-kirolerako Jarduteko Arau Orokorretan atal horietarako ezarritakoa errespetatuz (ondorengo oharretan zehaztuta dago).

b.ESKUEN HIGIENEA

Eskola Kirolak, Mutrikuko Kiroldegiko beste erabiltzeile guztiek bezala, instalakuntzara sartzeko protokoloa bete behar dute. Hau da, eskuak eta arropa desinfektatu eta tenperatura hartu. Oinetakoak desinfektatzeko alfonbra ere badago sarreran, eta behin barrura sartutakoan, oinetakoak aldatu eta kirola egitekoak jantzi behar dira. Hau da, bi pare oinetako eramatea derrigorrezkoa da.

Baita ere jarduera bukatutakoan eskuak desinfektatu beharko ditugu. Horretaz arduratuko dira Eskola Kiroleko begiraleak.

Horretarako, bai kantxan bai gainontzeko gunetan (komunak, pasiloak...) eskuak eta materiala desinfektatzeko gel-a egongo da behar duenarentzat. Eta baita erabilitako prebentzio materiala (musukoak, papera...) botatzeko zakarrontziak ere.

c.GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

Mutrikuko Eskola Kirolak ez ditu erabiltzen kirol-instalazio edo espazio propioak, udaletxearenak baizik. Horrenbestez, Mutrikuko Kiroldegiko neurrien barnean sartzen da instalazioen garbiketa eta desinfekzioa. Garbiketa enpresak egunean bi aldiz garbitu eta desinfektatzen du kiroldegia (14:00-16:00ak bitartean eta 21:30ak pasa ondoren, kiroldegia itxitakoan). Desinfekzio lanetan arauak zehaztutako materiala erabiltzen da eta arreta berezia ematen zaie erabilpen handiko guneei, hala nola; aldagelak, sarrera, atea...

Beste aldetik, jardueretan erabilitako materialen desinfekzioa Eskola Kiroleko osasun arduradunari dagokio (Eva Sanabria). Hasteko, ahalik eta material gutxien erabiltzen saiatu beharko da, eta ezinbestekoak diren materialak soilik partekatzen (baloiak, pikak, uztaillak...). Partekatu eta erabili diren material guztiak desinfektatuko dira, erabili aurretik zein erabili ostean.

Bukatzeko, erabilitako babes-materialak botatzeko elementuak, zakarrontziak, jarriko dira kiroldegiko hainbat tokitan eta baita kantxan ere, guk gure jarduera burutzen dugun tokian.

d.ESPAZIOAK ETA INSTALAZIOAK AIREZTATZEA

- Mutrikuko Kiroldegiak badauka, bere protokoloaren barruan, instalakuntza aireztatzeko neurriak. Ireki aurretik eta aurretiko zitako txandean artean instalakuntza aireztatzen dute, beti.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





**MUTRIKUKO
ESKOLA KIROLA**
2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

Horren gain, Eskola Kirolaren inizatibaz, saioak aireztasun hobearrekin egiteko helburuaz, Mutriku Kiroldegiko kantxak dituen larrialdi irteerak irekiko dira. Instalazioaren aireztatze naturala bilatzeko, elkarteko jarduera guztietan ate hauek zabalduko dira.

Baita ere Goizeko izarra Ikastolako bi patioak erabiliko ditugu.

2.MASKAREN ERABILERA

Maskarak uneoro erabili beharko dira, osasun-agintariek ezarritakoaren arabera.

Kirolariek ez dute nahitaez erabili beharko kirola egiten duten bitartean, jarduera fisikoa intentsitate gutxikoa den diziplina eta jardueretan izan ezik.

Hitzaldi teknikoetan, kirolariek maskarak erabili beharko dituzte nahitaez, entrenamenduetan edo lehiaketetan ematen diren kasuetan izan ezik, hala nola taldeko azalpenetan edo hutsarteetan; horietan uneoro errespetatu beharko dute pertsonen arteko segurtasun-tartea.

Era berean, kirolariek, lehiaketa edo jarduera hasi ondoren, parte hartzen hasteko zain dauden egoeretan ere erabili beharko dute, edo euren esku-hartzea amaitu dutenean baina lehiaketa edo jarduera oraindik amaitu ez den egoeretan. Kasuistikaren arabera, kirolarien jarduerak aldizkakoak direnean (lehiaketan berriz sartzeko eskubidea duten aldaketak, parte hartzeko txandak, etab.), atsedenerako edo kirola ez egiteko espazioetarako maskarak edo pertsonen arteko distantzia ziurtatzeko mekanismoak nahitaez erabiltzea ezarri ahal izango da, azken kasu horretan maskararen erabilera gomendagarria ez bada.

Teknikariek eta epaile eta arbitroek maskara eraman beharko dute etengabe, beren jarduera behar bezala egin ahal izateko ahalegin fisiko handia egin behar duten jarduera edo egoeretan izan ezik.

Jarduera, entrenamendu edo lehiaketetako saioetan kirol-jarduera fisikorako erabiltzen den denbora-tartetik kanpo, maskara nahitaez erabili beharko dute bai kirolariek eta talde teknikoko kideek, bai kirol-instalazioen edo -espazioen esparru osoan dauden beste pertsona batzuek.

Betebehar horiek ez dira eskatuko osasun-agintariek baimendutako kasuetan (arnas-arazoak, ezintasunak, etab.).

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



Joan-etorrietan, gaua igarotzean, jantokietan eta eskola-programako jardueri lotutako bestelako egoeretan, osasun-agintariek eremu horietarako ezarritakoa errespetatu beharko da uneoro.

Kirolariek, teknikariek eta arbitroek jarduera egiteko maskara kendu behar izaten duten kasuetan, bai jarduera osoan bai tarteka, oihalezko poltsa bat edo antzeko bat eraman beharko dute jardueretara eta lehiaketetara norbere maskara sartzeko; poltsak izena jarrita izango du nahasketarik izan ez dadin.

Jarduera fisikoa intentsitate haundikoa baldin bada maskara kendu ahal izango dute umeez, begiraleak ordea saio osoan maskara erabili beharko dute uneoro.

3.JARDUERAK: SAIOAK, ENTRENAMENDUAK ETA LEHIAKETAK

KONTAKTUAK GUTXITZEA

Kontaktu kopurua murrizte aldera, saioak edo entrenamenduak, ahal den neurrian, honela egingo dira:

- Ahalik eta jende gutxienarekin, eta beti gehienez ere hamabost pertsonako talde edo azpitaldeetan antolatuta, jarduera gauzatzeko behar diren teknikariak barne.
- Ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, eta, ahal bada, egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia mantentzen saiatuko dira (gaur egun, 1,5 metrokoa da).
- Teknikariek taldeetan lan-azpitalde egonkorak ezarriko dituzte, eta, ahal den neurrian, ikasgeletako talde egonkorak errespetatuko dira.

Kontakturik gabeko jardueren kasuan, edo erakundeek kontakturik gabeko jarduerak bakarrik baimentzen dituzten kasuetan, honako paragrafo hau sar daiteke: "KONTAKTUAK GUTXITZEA

Kontaktu kopurua murrizte aldera, saioak, ahal den neurrian, honela egingo dira:

- Ikastetxeetako talde burbujak mantenduko ditugu.
- Ahalik eta indibidualizatuenak izango dira saioak, egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia mantentzen saiatuko dira (gaur egun, 1,5 metrokoa da).
- **JARDUERAK AIRE ZABALEAN**

Ahal den guztietan, jarduerak aire zabalean egingo dira.

MATERIALEN ERABILERA

Ahal den neurrian, materialak partekatzea saihestuko da.

Jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komunezko materialei gomendatutako higiene- eta garbiketara-neurriak aplikatuko zaizkie.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





Inola ere ezingo dira partekatu ur-botilak; kirolari bakoitzak bere botila eraman beharko du, norberaren izena nabarmen ikusteko moduan jarrita, nahasketarik izan ez dadin. Berdin jokatu da saioan zehar norberak erabiltzeko bestelako kirol-materialarekin edo material osagarriarekin (toallak, petoak, etab.), kirolarien artean nahasketarik izan ez dadin. Ezingo dira partekatu janariak eta edariak, ezta mukizapiak edo antzeko elementuak ere; guztiak individualak izango dira. Kirolariak asko izerditzen duten, airea indarrez botatzen duten edo listu asko jariatzen duten jardueretan, gomendagarria litzateke kirolari bakoitzak toalla bat eramatea jarduerara eta, tarteka, teknikariak atsedendaldi bat egitea garbitzeko.

Botikineko materiala erabiltzen denean, erabili duen pertsonak erabili eta botatzeko eskularruak jantziko ditu beti.

ALDAGELAK

Debekatuta dago aldagelak erabiltzea, egoerak hala eskatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra denean, beste herri batzuetan bizi diren haurrak eta joan-etorri luzeak egin behar dituztenak daudenean, uretako jardueretan, etab.). Osasun-arduradunak ezarriko ditu neurri honen salbuespenak.

Aldagelak erabili behar izanez gero, jarduerako teknikariak ezarriko du babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatzeko sistema bat. Txandak egiten badira, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak hartuko dira kontuan.

Horrela, entrenamenduen edo lehiaketen aurretik, horiek egiten diren bitartean eta ondoren antolatu nahi izaten diren hitzaldi teknikoak, baldintzek ahalbidetzen badute, jokalekuan bertan edo kirol-instalazioen harmailetan egingo dira, aldageletan edo espazio txikiagoetan egin beharrean.

LAGUNTZAILEAK EDO IKUSLEAK

Instalazioetan ezingo da egon jardueran parte hartzen ari diren taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor, ez lehiaketetan, ez saio edo entrenamenduetan.

Kirol-espaziora honako hauek baino ezin izango dira sartu: kirolariak eta eskola-lizentzia duten edo dagokion jardueran ofizialki izena emanda dauden teknikariak; lehiaketa-jardueren kasuan, epaileak, arbitroak eta antolatzaileak; kirol-erakundeetako osasun-arduradunak eta eskolakiroleko arduradunak, dagokion administrazioan horrela egiaztatuta daudenak;

jarduerak egiten diren kirol-instalazioetako langileak; eta administrazio publikoek baimendu dituzten beste pertsona batzuk.

Kirolari adingabeak jarduerak irauten duen denboran bakarrik egongo dira kirol-espazioetan. Jarduerak amaitu ondoren, ezingo dira kirol-espazioan gelditu.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





Adingabeei jardueretara laguntzen dieten pertsonen instalazioetako edo esparruetako sarrerako ateetan utziko eta jasoko dituzte. Adingabeek ezinbestez behar badute arropaz aldatzeko edo antzeko laguntza, laguntzaileak osasun-arduradunarekin harremanetan jarri beharko dira bere oniritzia izateko.

Lehiaketetan kirol-espazioetara sartu nahi duen edonork, sar daitekeela egiaztatu beharko du lizentziaren edo ziurtagiriaren bidez.

KIROL-PRAKTIKARAKO EDUKIERA

Kirol-instalazioetan, kirol-praktikarako gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 60 izango da.

Instalazioaren gehieneko edukiera instalazioaren sarreran adieraziko da. Osasun-arduradunaren erantzukizuna izango da jardueren eguneroko plangintzak edukieraren muga inoiz gaindituko ez duela gainbegiratzea.

Dena den, teknikariek kontrolatuko dute euren jarduerak burutzen ari diren kirol-espazioaren edukiera, inoiz gaindituko ez dela zainduz.

AGURRAK ETA OSPAKIZUNAK

Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak eta/edo despedidak edo ospakizunak. Kirolariek ekintza horiek ukitu gabe burutzeko, talde bakoitzeko teknikariek beste modu batera egitea proposatuko dute.

4.JARDUEREI LOTUTAKO BESTE ELEMENTU BATZUK

JOAN-ETORRIAK

Ahal den guztietan, joan-etorriak modu aktiboan egitea (oinez, bizikletaz, patinetz) eta banaka edo, hala ezin bada, familia-unitatearen arabera egitea gomendatzen da.

Familia-unitate diferentetako pertsonen bidaiatu behar duten ibilgailuak erabiltzen badira, joanetorrien esparruan administrazio eskudunak ezarritako arauak bete beharko dira.

GAUA IGAROTZEA ETA / EDO JANTOKIA DUTEN JARDUERAK

Egin beharreko jarduerak gaua igarotzea eskatzen badute, partekatutako logelak jarduera garatzeko azpitaldea osatzen duten kirolariek okupatuko dituzte, ehuneko hirurogeian, erakundeko teknikariek gainbegiratuta. Ohatzea erabiltzen bada, pertsona bakar batek beteko

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





**MUTRIKUKO
ESKOLA KIROLA**
2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jardueren Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

du. Gutxienez bi metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da okupatutako oheen artean, edo hesi-neurriak ezarriko dira.

Kanpin-dendak erabiltzen direnean, pertsona batek lo egin ahal izango du denda bakoitzean. Parte-hartzaileak bizikideak badira, denda bera okupatu dezakete. Dendak fisikoki bakartuta dauden hainbat gela baditu, logela horiek hartu ahal izango dira, eta egunero jaso, garbitu eta

aireztatuko dira. Halaber, gaua vivac egoeran igarotzea baimentzen da, zakuen segurtasun- eta higiene-distantzia mantenduz.

Jantoki itxiak erabili behar badira, edukieraren ehuneko hirurogeira mugatuko da haien okupazioa, eta jankideen arteko segurtasun-tartea mantenduko da. Txandak ezartzea gomendatzen da, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak mantenduz. Jantoki irekien kasuan, pertsonen arteko segurtasun-tartea mantendu beharko da. Inolaz ere ezin izango da janaririk edo tresnarik partekatu horretarako (platerak, edalontziak, mahai-tresnak, ezpainsapiak, etab.).

ALDI BEREAN EGITEKO BESTE JARDUERA BATZUK

Debekatu egongo da jarduerak edo lehiaketak egiten diren aldi berean jarduera ludikoak edo komertzialak antolatzea. (Adibidez: tabernak, stand komertzialak, puzgarriak eta beste jarduera ludiko batzuk, etab.)

GIZARTE-DESABANTAILAN DAUDEN KOLEKTIBOEN BABESA

Erakundeak, ahal duen neurrian, neurriak ezarriko ditu baliabide gutxien dituzten eta COVID19aren pandemiak ekonomikoki kaltetu dituen familiek kirol-jarduera egiten jarraitu ahal izan dezaten.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





MUTRIKUKO
ESKOLA KIROLA
2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

COVID-19ko KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

1. FAMILIEN ETA GAINERAKO PERTSONALAREN JARDUKETA

COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat duten —adibidez, 37^otik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa— kirolariek eta erakundeko gainerako kideek ezingo dute kirol-jarduerara joan, ezta COVID-19a diagnostikatu dietelako bakanduak daudenek, edo COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izategatik etxean berrogeialdia betetzen ari direnek ere.

Lehiatzen duten erakundeetako kirolarien gurasoek edo tutoreek, kirol-jarduera dagoen egun bakoitzean, hau hasi aurretik, kirolari horiek COVID-19aren sintomarik ez dutela egiaztatu eta

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





ziurtatu beharko dute. Halaber, etxeko norbaiti (adingabeari edo beste pertsona bati) COVID19a diagnostikatu badiote, kirol-erakundeari eta norberaren erreferentziako osasun-zentroari ohartarazi beharko diete eta, hala badagokio, ardurapean duten seme-alaba edo adingabea etxean eduki beharko dute. Lanordutik kanpo bada, eta premiazko sorospena beharrezkoa bada, hauek dira Osakidetzaren Larrialdietako telefonoak: Araba: 945 244444; Bizkaia: 944 10000; Gipuzkoa: 943 461111.

Ikasturtearen hasieran, familiek idatzizko konpromisoa hartuko dute kirol-erakundearekin alderdi horiek betetzeko. Erakundeek eredu bat erantsi dute kirol-erakundeek erabili ahal izateko.

Baldintza hori bera eta idatzizko konpromisoa eskatuko diete teknikariei, epaileei eta kirolerakundearen eskola-kiroleko jardueretan nahastuta dauden gainerako pertsoneri. Erakundeek eredu bat erantsi dute entitateek erabili ahal izateko.

2. KIROL-ERAKUNDEAREN JARDUKETA

COVID-19KO KASU BAIEZTATUAK

Kirol-erakundeko kirolari edo pertsonaleko kide batek COVID-19an positibo ematen duenean, erakundean protokoloa betetzeko izendatutako arduradunak kasua Osakidetzako zerbitzuetara deribatuko du, dagozkien osasun-protokoloak aplikatzeko.

Halaber, erakundeko osasun-arduraduna osasun-agintaritzaren (aztarnariak) esku jarriko da eta, hala badagokio, berekin harremanetan izan diren pertsonen informazioa emango du.

COVID-19 SINTOMAK JARDUERAREN AURRETIK

Zuhurtasun-printzipio gisa, entrenamendu, saio edo lehiaketa bat hasi aurretik, kirol-talde bateko pertsona batek sukarra edo COVID-19aren sintoma argiak dituen kasuetan, honako neurri hauek hartuko dira:

- Saioak edo entrenamenduak bertan behera geratuko dira, erakundeko osasunarduradunak, osasun-agintariekin harremanetan jarri ondoren, oniritzia eman arte.
- Talde-kirol bateko partida baten aurretik gertatzen bada, parte hartzen duen kirolerakundearen osasun-arduradunak beste taldeari/erakundeari jakinaraziko dio partida nahitaez bertan behera geratuko dela. Halaber, ahalik eta azkarren, erakunde antolatzaileari ere jakinaraziko dio honek jakin dezan eta behar diren neurriak har ditzan.
- Bakarkako kirol bateko lehiaketa baten aurretik gertatzen denean, parte hartuko duen kirolerakundearen osasun-arduradunak antolakuntza-erakundeko osasun-arduradunari

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





jakinaraziko dio positibo eman duen pertsonaren kirol-taldeko gainerako kideek ez dutela lehiaketan parte hartuko.

COVID-19 SINTOMAK JARDUERAN ZEHAR

Kirol-jardueran zehar gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasteko arazoak, etab.) agertzen badira, jarduerari lotutako teknikariek kirol-erakundearen osasun-arduradunari jakinaraziko diote. Honek, berriz, kirolariaren familia abisatuko du kirolaria jasotzera joan dadin. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan baloratuko da egoera. Baloratu arte, pertsona bakandua mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol-erakunde gainerako pertsonetan agertzen badira, haiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete beharko dituzte.

Erakunde osasun-arduradunak, egoera zein den ikusita, une horretan bertan jarduera bertan behera geratuko den edo aurrera jarrai dezakeen aztertuko du. Bigarren kasu horretan, jardueraren teknikariei prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz ditzaten eskatuko die: kontakturik gabeko jarduerak eta pertsonen arteko distantziak handitu, maskararen erabilera derrigortu (intentsitate txikiko jarduerak gauzatzea), eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiene-neurriak maiztasun handiagoz hartzea, etab. Teknikariek muturreko neurri horiek euren kabuz hartu beharko dute, kutsatzeko aukera edo arrisku txikiena dagoela uste dutenean.

FAMILIEKIN ETA ERAKUNDEKO BESTE PERTSONA BATZUEKIN KOMUNIKAZIOA

Erakundearen barruan gertatutako COVID-19ari lotutako kasu edo egoera baten aurrean, familiei edo erakunde beste eragile batzuei jakinarazi behar dietenean, jakinarazpen hori, kasu bakoitzaren arabera, osasun-agintariek edo kirol-erakundeak berak egingo dute. Bigarren kasuan, jakinarazpena osasun-arduradunak egingo du beti (ez teknikariek).

DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA

Kirol-erakundeak protokolo honetan finkatutako arauak ez betetzearekin lotutako hainbat arauhauste erantsi ditu Barne Araubideko Erregelamenduan, baita kutsatzeko arriskua handitzen duten jokabideekin edo jarrerekin lotutako beste batzuk ere.

Arau-hausteak:

- Arau-hauste arinak:

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





- Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea.
 - Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiena ez betetzea.
 - Doministiku egitea, nahi gabe finkatutako babes-mekanismoak erabili gabe.
 - Behin eta berriz, instalazioko lurzorura edo beste azalera batzuetara txistua, mukiak edo antzekoak botatzea nahi gabe.
 - Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea edo partekatzea, hori egitea debekatua dagoen kasuetan.
 - Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) erabiltzea edo partekatzea nahi gabe.
 - Kontaktuko agur, despedida edo ospakizun bat nahi gabe egitea. ○Norberari dagozkion jardueren denboratik kanpo kirol-instalazioan egotea.
 - Aldagelak nahi gabe baimenik gabe erabiltzea.
- Arau-hauste larriak:
- Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz.
 - Jarduera egikaritzeko finkatutako eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiena ez betetzea, behin eta berriz. ○Doministiku egitea, finkatutako babes-mekanismoak nahi gabe edo behin eta berriz erabili gabe.
 - Kirol-praktikaren arabera beharrezkoa ez den egoeratan beste pertsona bat ukitzea edo harengana gehiegi eta nahita hurbiltzea, haren borondatearen aurka. ○Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea hori egitea debekatu denean eta pertsona horrek baimendu ez duenean. ○Beste pertsona baten arrisku bereziko banakako erabilerako materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) nahita erabiltzea edo partekatzea.
 - Teknikarien, epaileen edo kirol-erakundeko edozein arduradunen agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arriskua eragin dezaketen egoeratan.
 - Agurrak, despedidak edo ospakizunak ukituz egitea nahita edo behin eta berriz.
 - Norberari dagozkion jardueren denboratik kanpo kirol-instalazioan egotea behin eta berriz.
 - Berriaz aldagelak baimenik gabe erabiltzea. ○COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati iseka egitea edo hura mespretxatzea. ○Bost arau-hauste arin metatzea.
- Arau-hauste oso larriak:
- Kirol-espazioetan edo jardueran agintariak eta erakundeak maskararen erabileraren inguruan finkatutakoa ez betetzea, behin eta berriz eta berriaz.
 - Beste pertsona bati berriaz txistua, mukiak edo antzekoak botatzea edo doministiku egitea. ○Kirol-praktikaren arabera beharrezkoa ez den egoeratan beste pertsona bat ukitzea edo harengana gehiegi eta nahita hurbiltzea, behin eta

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





berriz eta haren borondatearen aurka. ○Beste pertsona baten arrisku bereziko norbanakoak erabiltzeko materialak (ur botilak, toallak, zapiak, etab.) hartzea, nahita pertsona horri jakinarazi gabe.

- Teknikarien, epaileen, osasun-arduradunaren edo kirol-erakundeko beste edozein arduradunaren agindu zuzenak ez betetzea, kutsatzeko arrisku handia dagoen egoeratan. ○Kirol-jarduerara COVID-19ari lotutako sintomak dituela joatea, behar diren neurriak hartu gabe edo hartutako konpromisoak bete gabe. ○Kirol-erakundeko kide den pertsonak edo bere bizikidetzaren unitateko beste pertsona batek COVID-19a duela edo honi lotutako sintomak dituela ez jakinaraztea kirolerakundeari.
- COVID-19a duelako edo izan duelako haur bati edo beste pertsona bati jazarpena edo bullying egitea, edo egoera horren inguruan gezur bat hedatzea. ○Hiru arau-hauste larri metatzea.

Arau-hauste mota bakoitzerako ezarri beharreko zigorrak jada jasota daude Barne Araubidean.

Halaber, lanaren bidez lotuta dauden pertsonen arau-hausteen kasuan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan edo negoziatutako baliabide baliokidean xedatutako neurria hartuko da.

Osasun-arduradunak arau-hauste horien eta jarritako zigorren berri familiei, teknikariei eta epaileei emango die. Halaber, teknikariek kirolariei haiek azalduko dizkiete, eta arauak betetzea eta hezkuntza-balioa oso garrantzitsuak direla erakutsiko diete.

PROKOLUA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA

Protokolo hori eta bere eraginpean dauden pertsona guztiek hartu beharreko neurriak ezagutzen direla bermatzea ezinbestekoa da. Horretarako, protokoloak eta neurriak zabaltzeko eta ezagutzera emateko erakundeak bitarteko hauek erabiliko ditu:

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





HEDAPEN OROKORRA

- Orokorrean, kirolarien familia guztiei eta erakundearen egitura osatzen duten pertsona guztiei —langileak eta boluntarioak— mezu elektronikoa bat igorriko diete. Bertan, Protokolo hau onartu dela jakinaraziko diete eta protokoloa bera modu eraginkorrean aplikatzeko laguntza eskatuko diete. Familiarentzako, kirolarientzako, teknikarientzako eta epaileentzako sortutako dibulgazio-materialera eta Protokolora esteka bat erantsiko dute. Erakundeek sortutako dibulgazio-materiala bere horretan emango da edo, erakundeari egokia iruditzen bazaio, erakundearen baldintzetara egokituta (eta/edo erakundeari egokia iruditzen zaion beste edozein dokumentu).
- Federazioaren web-orriko gune nagusi batean, datu hauek bilduko dituen espazio espezifiko bat jarriko da:
 - o Erakundeko osasun-arduradunaren izena eta harekin zuzenean harremanetan jartzeko modua (telefonoa eta posta elektronikoa).
 - o Familiarentzako, kirolarientzako, teknikarientzako, epaileentzako, osasunarduradunarentzako eta erakundeko arduradunarentzako sortutako informaziomateriala eta Protokoloa, baita egokitzen den gaiari lotutako beste edozein dokumentazio ere.
- Kirolguneen sarreran, aldageletan eta beste gune estrategiko batzuetan, prebentzioan eta higielean arreta berezia edukitzeko kartelak ipiniko dituzte. Hala egingo da, kirol-instalazioa edo kirolgunea norberarena denean. Instalazioa norberarena ez denean, bertako titularrari kartel horiek jartzea proposatu ahal izango zaio. [Web-esteka](#) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sortutako kartelak ikusteko.
- Erakundeek kartel-eredu batzuk egin dituzte. Euren webguneetatik jaitsi daitezke.

JAKINARAZPEN/SENTSIBILIZAZIO ESPEZIFIKOAK

Eragile edo kolektibo mota bakoitzerako informazio-materialen zein familiek, teknikariek eta epaileek sinatu beharreko konpromiso dokumentuen erreferentziako ereduak lotu dira.

- **Familiak**, jarduerak hasi aurretik:
 - o Posta elektronikoa bidez igorriko dena:
 - Erakundearen protokoloa.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



- Familientzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
 - Kirolarientzako sortutako informazio-materiala, familiek adigabeei ezagutzera emateko eta, kirol-erakundearekin batera, haren inguruan sentsibilizatzen laguntzeko.
 - Prebentzio-neurriak eta parte-hartze baldintzak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu eta erakundeari entregatu beharko zaio.
 - Jarduera-taldetan banatuta bilera telematikoak egingo dituzte, neurri guztiak ezagutzera emateko, familien papera eta konpromisoa oso funtsezkoa dela azaltzeko, eta euren zalantzak edo kezkek argitzeko.
- Erakundeko **teknikariak**, jarduerak hasi aurretik:
- Posta elektronikoko bidez igorriko dena:
 - Erakundearen protokoloa.
 - Teknikarientzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
 - Kirolarientzako sortutako informazio-materiala, teknikariek euren ardurapean dituzten kirolariei lehen saioan/entrenamenduan jakinarazteko.
 - Derrigorrezko higiene eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu beharko dute.
 - Teknikariek bilera telematikoak egingo dituzte, neurri guztiak ezagutzera emateko, haien papera eta konpromisoa oso funtsezkoa dela azaltzeko, neurriak betetzen ez diren kasuetan ezarriko diren zigorren berri emateko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.
- **Kirolariak:**
- Jarduerak hasi aurretik:
 - Familiek prebentzio- eta higiene-neurriak betetzeak duen garrantziaz sentsibilizatuko dituzte, kirolarien informazio-materiala oinarritzat hartuz.
 - Jardueraren lehen egunean:
 - Teknikariek prebentzio- eta higiene-neurri guztien inguruko azalpen xehatua emango diete, kirolarien informazio-materiala oinarritzat hartuz.
- Erakundeko **epaileak:**
- Lehiaketak hasi aurretik, posta elektronikoko bidez edo fisikoki, dokumentu hauek banatuko dizkiete:
 - Epaileentzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:





MUTRIKUKO ESKOLA KIROLA 2020-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Actividad Física y Deporte

- Derrigorrezko higiene eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduera hasi aurretik sinatu beharko dute.

Erakundearen erabakiz edo agintari eskudunen arau edo ildo berrien ondorioz protokoloan egiten den edozein aldaketaren berri eraginpean dauden pertsona guztiei emango diete posta elektronikoz, gutxienez. Halaber, aldaketak oso garrantzitsuak badira edo hasieran hartutako neurriak asko aldatzen badituzte, bilera telematikoak egin ahal izango dira aldaketa horiek azaltzeko/hedatzeko. Gerora, aldaketa horien berri kirolariei eman beharko zaie, zuzenean familien eta teknikarien bitartez.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala



PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Egoera berria dela kontuan hartuz, funtsezkoa da hartutako neurriak eta hautemandako jarrerak eta jokabideak etengabe ebaluatzea eta haien jarraipena egitea. Hala, erakundearen maila guztietan taldekako balorazioak edo bilerak planteatuko dituzte.

ZUZENDARITZA-ORGANOAREN BILERAK

Osasun-arduradunak erakundearen zuzendaritza- edo administrazio-organoaren bileretan hartuko du parte. Bilera horietako gai-zerrendan COVID-19ari aurre egiteko erakundearen jarduketak eta egoera baloratzeko puntu bat ezarriko da.

Ikasturte honetako egoera berezia denez, hilabete bakoitzean gutxienez bilera bat egingo da. Edozein unetan ezohiko bileretarako deialdia egin ahal izango da edo bilerak maizago egin ahal izango dira, hala egitea beharrezkoa dela ikusten bada, batez ere ikasturtearen hasieran.

BILERAK TEKNIKARIEKIN

Ikasturtea hasi ondoren, teknikariek bilera telematikoak egingo dira egoeraren balorazioa egiteko, neurriak zuzen aplikatzen ari direla ziurtatzeko, haiek egokitzeko —behar izanez gero—, eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Horretarako, gutxienez, bilera hauek egitea proposatuko da:

- Jarduerak hasi eta astebetera.
- Jarduerak hasi eta hilabetera.
- 2. hiruhilekoaren hasieran.
- 3. hiruhilekoaren hasieran.

TEKNIKARIEN ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK

Asteko lehen saioan teknikariek taldean egiteko balorazio labur parte-hartzaile bat planteatuko dute, COVID-19ari aurre egiteko neurrien funtzionamendua aztertze eta, hala badagokio, jarrerak eta jokabideak zuzentzeko.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Mutriku Udala